

Gure Whatsapp-taldea

Ia denok gaude Whatsapp-talde batean sartuta, eta ondotxo dakigu talde horietan sortzen diren gorabeherak; besteak beste, talde horietako batetik alde egin nahi izanez gero. Horretaz jardungo dugu sekuentzia honetan. Bertan ariketa hauek dauzkazu:

- Audioa entzun eta ulermen-galderei erantzun.
- Zenbait hitz edo espresioaren sinonimoak identifikatu grabazioan.
- Gelako Whatsapp-talde bat sortu gelakoen artean.

1. Nola atera Whatsapp-talde batetik?

Audioa entzun aurretik, komentatu ondokoarekin puntu hauek gaian sartzen joateko.

- Zenbat Whatsapp-taldetan zaudete sartuta?
- Inoiz atera al zarete talde batetik? Nola egin zenuten?



Orain entzun audioa eta idatzi labur galdera hauen erantzunak.

1) Idatzi Idoiak aipatzen dituen Whatsapp-taldeak?

1. *familiakoa*
2.
- 3:
4.
5.

2) Zer metodo edo estrategia aipatzen ditu Idoiak talde batetik ateratzeko?

1.
2.
3. *gezur mordo bat esan eta aurrera jotzea*
4.



<https://labur.eus/zQfay>



Elkartu lagun batekin eta konparatu erantzunak.

2. Espresioei begira

Nola esan dituzte elkarrizketan (entzun audioa edo erreparatu transkripzioari) ondoko esaldietan loditutako espresio edo hitzak?

- 1-Zein da daukazuen talderik **arraroena**?
- 2- Whatsapp-taldek atera nintzenetik, **oso beldurtuta** bizi naiz.
- 3- Talde batetik ateratzen bazara, gero **aurre egin behar zaio**.
- 4- Talde horiek bere **bidea** egin ondoren, hil egiten dira.
- 5- Whatsappek alde on asko ditu, baina zenbat **zentsugabekeria** bidaltzen dituen jendeak!

Elkartu lagun batekin eta konparatu erantzunak.
Bururatzen zaizue sinonimo gehiagorik?



3. Gelako Whatsapp-taldea

Talde txikian jarrita, egin ondorengo jarduerak:

a) Komentatu ondorengo Whatsapp-taldeen alderdi on eta txarrak.

| | Alderdi onak | Alderdi txarrak |
|-----------------------|--------------|-----------------|
| Familiakoa | | |
| Kuadrillakoa | | |
| Lankideena | | |
| Aspaldiko lagunena | | |
| Ekintza puntualetakoa | | |
| | | |

“ Nire ustez zaila da Aspaldiko lagun taldeari jarraipena ematea. Baina horrela, elkarren arteko harremanari eusten diogu ”

b) Gelako Whatsapp-taldea sortu behar duzue. Horretarako, erabaki:

- Jarri izena taldeari
- Nor izango da administratzailea? Nork osatuko dute taldea?
- Erabaki taldeko arauak:
- Zer-nolako mezuak jarri daitezke taldean? Nolakoak ez?
- Zenbatean behin jarri behar dira mezuak?
- Arauren bat betetzen ez duenarekin zer egingo duzue?

Eman talde osoari zuen proposamenen berri, eta adostu denon artean Whatsapp-talde horren funtzionamendua.

ERANTZUNAK

1. Nola atera Whatsapp-talde batetik?

1) Idatzi Idoiak aipatzen dituen Whatsapp-taldeak?

1. familiakoa
2. kuadrillakoa
- 3: aspaldiko lagunena
4. lankideena
5. ekintza puntualena

2) Zer metodo edo estrategia aipatzen ditu Idoiak talde batetik ateratzeko?

1. gauean ateratzea
2. mezu-trukaketa handia dagoenean
3. gezur mordo bat esan eta aurrera jotzea
4. atera eta kito

2. Espresioei begira

- 1-Zein da daukazuen talderik **arraroena**? **Xelebreena** (*bereziarena...*)
- 2- Whatsapp-taldetik atera nintzenetik, **oso beldurtuta** bizi naiz. **ikaraz** (*ikaratuta, izututa...*)
- 3- Talde batetik ateratzen bazara, gero **aurre egin behar zaio**. **aurpegia eman behar da**
- 4- Talde horiek bere **bidea** egin ondoren, hil egiten dira. **ibilbidea** (*egitekoa, eginkizuna...*)
- 5- Whasappek alde on asko ditu, baina zenbat **zentsugabekeria** bidaltzen dituen jendeak! **txorakeria** (*erokeria...*)

TRANSKRIPZIOA

MANU ETXEORTU KAZETARIA. Beraz, galdera: Atera al zarete inoiz Whatsapp-talde batetik? Ze estrategia erabili duzue?

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Hori da. Horretarako.

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Ze argumentu erabili duzue, ze arrazoi?

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Hori!

MANU ETXEORTU KAZETARIA. Nola arrazoi duzue gainontzeko kideen aurrean bazoaztela? Eta gero, bi; Whasap-talde askotan gaude denok: Zein da parte hartzen duzun Whatsapp-talderik xelebreena?

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Hori da, adibidez, edo nahi duzuen inguru horretan. Izan ere, badaude, mailaketa desberdina dago, e! Hemen Whatsapp-talde batzuk uztea zailagoa izaten da beste batzuk baino: hori aitortu dezagun. Eta hortxe badauzkagu, top-aren top-ean (goren gorenean) zailenak direnen artean, batzuk ba, familiakoak. Familiako Whasappa uztea ia ezinezkoa da.

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Ezinezkoa da: harrapatuta zaude.

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Hor badago, o sea, talde...

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Lotzen zaitu odolak eta Whasappak.

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Hori esan behar nuen, ezta? Familiakoarekin batera badaukagu, odolkidetasunik beharbada ez dago, baina lotura esango nuke familiarena edo, oraindik(an) ere estuagoa dela.

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Estuagoa dela.

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Eta da kuadrillakoarena. Kuadrillako Whatsapp bat uztea gutxitan gertatzen da.

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Entzule batek dio: “Kuadrillako Whatsappetik irten nintzen, eta geroztik ikaraz bizi naiz: begirada txarrak jasan behar ditut. Nik nahi gabe atera nintzela esan nien, baina ez dute sinisten”.

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Bai, bai. Hor gero aurpegia eman behar da. Baina ikusten duzue? Gero hor badago beldur bat, presio hori, ezta?, nola, nola izango den. Gero badago, badaukagu beste, aspaldiko lagunena.

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Aspaldiko lagunak, bai. Ez daukazu hainbesteko konpromisorik.

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Eskolako lagunak izandakoak, edo unibertsitatekoak, edo uda batean edo ezagututakoak... ba orain bakoitzak bere bizitza egiten du, toki desberdinetan, oso gutxitan ikusten zarete (elkar ikusten duzue). Bueno, ba, joaten baldin bazara, ez da hainbesteko kalterik gertatzen. Hemen, nik uste dut, denbora pasatzen uztea izan daiteke, eta jada konturatzea ba zentzurik ere ez daukala zera honek...

MANU ETXESORTU KAZETARIA. ...taldeak, ez?

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Hau beharbada momentu batean uzten duzu, ez da hainbeste gertatzen. Gero badago lankideen Whatsapp-taldeak ere. Lankideen Whatsapp-taldeak ere, hor badaude, esango nuke arriskua pixka bat ere nahiko altua izan litekeela, ezta?

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Bai, ze ordu asko ematen ditugu lankideekin.

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Azkenean, familiarekin edo kuadrillarekin baino denbora askoz gehiago pasatzen dugu. Gero badago, Whatsapp-talde batzuk edo tipo bat edo mota bat, izaten dena, ekintza puntualena.

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Ekintza puntualak.

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Ba azkenean bizitzako gertakari berri bakoitzeko Whatsapp-talde bat irekitzen duzu: izan daitezke ostiraleko afariak, izan daitezke puntualki orain inauterietako ideiak eta bazkariak eta proposamenak egitekoa... edo bidaia bat.

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Hemen ere bere ibilbidea egiten du, eta hau berez hil egiten diren horietakoa da.

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Hori da. Bere horretan, ezta?

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Hemen ez duzu atera beharrik(an).

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Entzule batek dio: “Whatsapp-taldea uztea? Hori ez da problema. Ifrentzuaren ifrentzua: Nola bota norbait Whatsapp-taldetik?”

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Nik hemen badauzkat metodo batzuk baita jendeari ere eskaintzeko. Horietako bat da gauaren erdian ateratzea.

MANU ETXESORTU KAZETARIA. A, oso ondo: disimuluan atera, ez? Dio entzule batek. “Egun on. Gure kuadrillan bazen bat pasa egiten zena, bideoak edo txiste txarrak bidaltzen zituenen Whatsapp-taldera. Bidali egin genuen bi aste edo zigortuta. Hori bai: aurretik abisatu egin genion”. Hau da bestea!

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Hemen Whatsappeko polizia dago: ¡ojo!, (erne!) badago hemen, e!

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Whatsapp-taldeena oso gauza interesgarria da, ze garai bateko jendearekin kontaktua izateko aukera ematen dizu, baina gero zenbat bideo txoro iristen diren, zenbat txorakeria!

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Beste bat izango litzateke, Whatsapp-talde batean eztabaida handia edo gai batek joko asko ematen baldin badu, hortxe, tak, ateratzea. Jakinarazpen asko ari dira pasatzen momentu horretan eta orduan zureak ere hor pasa daiteke tartean, inor konturatu gabe. Orduan hor izango litzateke, Whatsapp-mezu trukaketa oso altua dagoen horretan, tak, ihes egitea.

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Ihes egitea.

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Hori izango litzateke beste metodo batzuekin, edo entzuleek esaten dutenekin.

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Bueno: “Bada Whatsappen pertsona-klase bat, sekula parte hartu ez, ez eta pertsonalki azaltzen ez dena, baina ez da taldetik ateratzen kotilloez (txutxumutxuez) enteratzeko..

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Hori da.

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Hau ere badago.

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Perfil hori ere badago...

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Voyeur-ak... (begiluzeak)

IDOIA TORREGARAI UMORISTA. Hori da. Metodoa esango dizuet baita ere edo. Ba gezurretan hasi, hau da, zure telefonoa memoriarik gabe geratu dela, SIMa aldatu diozula, blokeatu egin zaizula... Bueno, ja, hau da piska bat, nola esaten da?: gezur guztiekin aurrera. Berdin du zuk zer esan. Okurritzen zaizkizun guztiak, eta horrela noizean behin aspertuko dira galdetzeaz. Hori izango litzateke hirugarren metodoa eta gero laugarrena izango litzateke erantzukizun handiena daukana, edo bueno, zeure buruarekin zintzoa izatea, eta horixe da, atzera ez begiratu, atera eta punto, eta hortik aurrera entzun beharrekoak entzun, eta, eta horrekin, horrekin aurrera.

MANU ETXESORTU KAZETARIA. Bueno ba hortxe, gaur egungo gizarteak duen arazo, ez noa esatera larrienetako bat, baina arazo bat bai.